

Irisgarritasunari buruzko araudia

- Hauteskunde Araubide Orokorreko 5/1985 Legeko 3. eta 87. artikulua
- Bizitza Politikoan eta Hauteskunde Prozesuetan Parte Hartzeko Oinarrizko Baldintzei buruzko Erregelamendua. (422/2011 Errege Dekretua, martxoaren 25ekoa).
- 1612/2007 Errege Dekretua, abenduaren 7koa, boto irisgarriko prozedurari buruzkoa
- INT/3817/2007 Agindua, abenduaren 21ekoa, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen botoa emateko eskubidea bermatzen duen boto irisgarriko prozedura garatzen duena

Informazioa eta kontsultak:

Informazio orokorreko telefonoa: 060
Boto irisgarriari buruzko telefonoa: 900 150 000
www.infoelectoral.mir.es
infoelectoral@interior.es

Triptiko honen egileak:

- Barne Ministerioa
- Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioa
- Desgaitasuna Artatzeko Bulegoa (OADIS)

Irisgarritasunari buruzko gida

2019ko hauteskunde orokorrak

Irakurketa errazeko bertsioa



ARASAAC atariaren piktogramak
<http://arasaac.org/>

Hauteskunde-lokal eta -mahai irisgarriak

Hauteskunde-mahaian esparru irisgarri bat izango duzu zure boto-papera aukeratzeko. Mahaiko kideak adi egongo dira botoa eman ahal izan dezazun.

Mahaiko kideak

Mahaiko kideek komunikazio bat eta esku-liburu bat jasoko dituzte. Irisgarritasunik ez badago kexu bat bidal dezakezu zure eskualdeko hauteskunde-batzordera. Gorrek zeinu-hizkuntzako interprete bat edo indukziozko begizta bat eska dezakete zazpi eguneko epean. Eskaera idatziz bidali beharko dute hauteskunde-batzordera

Braillez irakurtzen dakiten itsuentzako bozketa irisgarria

Barne Ministerioan eska dezakezu 900 150 000 doako telefonoan martxoaren 5etik apirilaren 1era.

Itsuentzako maleta

Hauteskunde-mahaian entregatzen da. Mahaian zerrenda bat izango dute maletina eskatu duten pertsona itsuen NANarekin. Bi maletin daude: Bata, hauteskunde orokorretarako, eta bestea, autonomikoetarako (Valentziako erkidegoa)

Zer dago maletinaren barruan?:

- dokumentazioa erabiltzeko gida, braillez
- botoa emateko gutun-azal bat
- zenbait gutun-azal, braillez eta tintaz hautagaitzen izenekin
- gutun-azal bakoitzaren barruan boto-papera dago.

Botoa ematen bukatzean sobratzen dena eraman zure botoa sekretua dela bermatzeko

Gomendio orokorrak

1. -Jokatu naturaltasunez eta begirunez.
2. -Lagundu baino lehen galdetu.
3. -Zentzuz jokatu.
Ez badakizu nola jokatu galdetu mahai-buruari.
4. -Kontuz ibili kontaktu fisikoarekin.
5. -Lagundu lokalera sartzen eta hauteskunde-mahaira iristen.